Udal talde politikoen iritzia

GETXOK ETXEBIZITZAREN ALDEKO PAUSOAK EMATEN JARRAITZEN DU

2019ko udaberrian aurkeztu genuen hauteskunde-programaren zortzigarren konpromisoak etxebizitza du hizpide, izan ere, gure hauteskunde-programan berariaz aipatzen dira hiri-antolamendua, babes publikoko etxebizitzak eta bizikidetza-eredu berriak.

Duela egun batzuk, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Amaia Aguirre Muñoa alkateak zuzkidura-bizitokiak aurkeztu zituen: Romoko belaunaldien arteko zentroan eraikiko diren 40 estudio dira, gazteei eta behar oso espezifikoak eta bereziak dituztenei zuzendutakoak. Eredu berri hori erreferente bihurtuko da, izan ere, aitzindaria da Euskadin, baita estatu mailan ere. Bertan sustatu nahi den bizimoduari esker, gazteek eta adinekoek bizi-harreman zinez interesgarriak biziko dituzte.

Une honetan, Getxoren etorkizuna marraztuko duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) onesteko lanean ari gara buru-belarri. Ildo horretatik, gure asmoa honako hau da: giza garapen iraunkorraren eta gure herriaren eta Getxon bizi, lan egin eta gozatzen dugunon beharrizanen arteko oreka mantentzea. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra beharbeharrezkoa dugu Getxoren egungo eta etorkizuneko premiei erantzungo dien Etxebizitza Plan bat garatu ahal izateko, HAPOren ezinbesteko oinarria baita.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onetsi bezain laster, Getxok etxebizitza berrien esparruan dituen premiei eman beharreko erantzunak zehaztu ahal izango ditugu, batez ere babes publikoarekin zerikusia dutenak edo gazteen emantzipazio-prozesurako bereziki egokiak diren bizitoki-sistema berrien ingurukoak.

Gure legegintzaldi-planari jarriki, EAJ-PNVk Getxorekin duen konpromisoaren isla dena, honako hau betetzen ari gara: "Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, babes publikoko etxebizitzak sustatzen eta eraikitzen jarraitzea, batez ere alokairura bideratutakoak, Iturribarri, Venancio, Konporte, Sarrikobaso, Maidagan eta Ormazan erabilgarri dauden hiri-lurzoruetan. Eta hori dagoeneko egiazta daiteke funtzionamenduan diren Getxon bizi, hazi eta gozatzeko espazio berrietan. Edo jada bete den beste konpromiso batean: "Etxebizitza kopurua handitzea sustatzea, etxebizitzen banaketa erraztuz eta sestra azpiko eta estalki azpiko espazioak aprobetxatuz". Ez ditugu ahaztu behar ezta ere Getxoko gazteei bereziki zuzendutako alokairu-laguntzak, gure gazteei bizi-plan bat garatzeko aukera handiak ematen dizkietenak.

Beste behin, betetzen ari garen konpromisoei buruz ari gara; izan ere, zailtasunak zailtasun, horiek gaindituz saiatzen gara.

ALGORTAKO GASOLINDEGIRAKO PROIEKTUA

2016ko uztailaren 30ean Algortako gasolindegiak jarduera amaitu zuen. Ordutik sei urte igaro dira, eta guk sei urte daramatzagu proposamenak egiten. Hala ere, proposamen horiek alde batera utzi dituzte, esanez ez dagoela argi lur horiek udalak edo gasolindegiak berak egokitu behar dituen, birmoldaketa-lanak egin aurretik. PPk uste du udalerriarentzako proiektu erabilgarri bat sortu behar dela: estalpeko autobus-geltoki bat, kiosko batekin (eskola-autobusak bertan gelditzen direla kontuan hartuta) eta komun publikoekin, herriak aspalditik egin duen eskaera baita. Udalaren utzikeria agerikoa da ordea, udalak berak hartu behar baitu aurrea eremu hori egokitzeko eta, ondoren, kostuak dagokionari jasanarazteko. #esnatuGetxo

ZEIN DA GETXON GURUTZAONTZIEK DUTEN INGURUMEN-ERAGINA?

Gurutzaontziak munduko ibilgailu kutsatzaileenetako bat dira (gurutzaontzi batek 12.000 autok beste CO2 isurtzen du) eta uda honetan 80 baino gehiago iritsiko dira Getxora (32 baino gehiago iritsi dira jada). Horregatik, ekaineko Osoko Bilkuran gurutzaontziek udalerriaren ingurumenean duten eraginari buruzko azterlan bat egitea eta hori minimizatzeko neurriak proposatzea eskatu genuen. Gobernu Taldeak (EAJ-PSE) ekimena baztertu zuen, ez baitute beharrezkotzat jotzen, baina hori ez dator bat ingurumena babesteko duten ustezko konpromisoarekin. Ezin dugu alde batera utzi jarduera horrek ingurumenari eragiten dion kaltea, aurrea hartu behar diogu eta kutsadurari mugak jarri, udalak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko hartutako konpromisoen ildotik. elkarrekinpodemos@getxo.eus

UDALAK LGTBI+ HORMA-IRUDI BAT ZENTSURATU DU

E28agaz lotuta EH Bilduk horma-irudia egin zuen Algortako etorbidean, LGTBI+ eskubideak aldarrikatzeko. Kale hau graffitiz eta margozketez josita dago, baina ezetz asmatu zein da Udalak ezabatu duen bakarra? Bai, LGTBI+ mezuak dituena. Zein da horretarako arrazoia? Iraingarria ote da "Aske eta harro, gora LGTBI+ borroka" dioen horma-irudia? EAJ eta PSEren Udal Gobernuari azalpenak eskatuko dizkiogu. Euren zentsuraren gainetik, sexu-aniztasuna aldarrikatzen jarraituko dugu, erakundeetan eta kalean.

ZURI ENTZUTEKO GAUDE

Getxoko PSE-EEk **herritarrak gure udalerriaren eraldaketaren parte izan daitezen nahi dugu**. Gure ustez, politika tresna bizia, dinamikoa eta erabilgarria da; horregatik, herritarren ahotsa, **ilusioak eta itxaropenak** lehen eskutik ezagutu behar ditugula uste dugu. Getxoko Sozialistok, **Carmen Díaz** gure bozeramailea buru dela, **zuri entzuteko gaude**, zure zalantzak, kexak eta iradokizunak helaraz diezazkiguzun. **Zure iritzia garrantzitsua baita** Getxorako politikarik onenak diseinatzeko. **688 75 86 94** psoe@getxo.eus.